



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUAREN ETA
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO
PRESTUAREN ARTEKO GIZARTE
LANKIDETZA HITZARMENA, ZERGA-
AITORPEN PUNTUALAK AURKEZTEKO
ETA ORDAINTZEKO.**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN SOCIAL
PARA LA PRESENTACIÓN Y PAGO DE
DECLARACIONES TRIBUTARIAS
PUNTUALES ENTRE EL DEPARTAMENTO
DE HACIENDA Y FINANZAS DE LA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y EL
ILUSTRE COLEGIO DE LA ABOGACÍA DE
GIPUZKOA.**

ELKARTURIK

Alde batetik, Jokin Perona Lertxundi jauna Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren (aurrerantzean, Departamentua) izenean diharduena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eta bestetik, M^a Lourdes Maiztegui González andrea, Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuaren (aurrerantzean, ICAGI) dekanoa, elkargo horren izenean eta ordezkaritzan diharduena entitatearen estatutuetan ezarritakoarekin bat.

Bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko legezko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri, eta xede horrekin honako hau,

ADIERAZTEN DUTE

Lehena.- Lurralde historikoetako erakundeek beren zerga araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko ahalmena dute, hala jasotzen baitu 1. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunak (2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartua). Eta lurralde historikoetako zerga sistema osatzen duten zergak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea foru aldundiei dagokie, bakoitzari bereak.

REUNIDOS

De una parte, don Jokin Perona Lertxundi, diputado foral de Hacienda y Finanzas, actuando en representación del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (en adelante, Departamento), en virtud de lo establecido en el artículo 40 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

De la otra doña M^a Lourdes Maiztegui González, decana del Ilustre Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa (en adelante, ICAGI), actuando en nombre y representación del colegio de conformidad con los estatutos de la entidad.

Ambas partes, se reconocen capacidad legal suficiente para suscribir el presente convenio y a tal fin,

MANIFIESTAN

Primero.- El artículo 1 del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece que las instituciones competentes de los territorios históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, su régimen tributario. Y que la exacción, gestión, liquidación, inspección, revisión y recaudación de los tributos que integran el sistema tributario de los territorios históricos corresponderá a las respectivas diputaciones forales.

Foru Aldundiak Ekonomia Itunaren Legearen eta hori garatzeko xedapenen arabera bere gain hartutako funtzioak beteko ditu Ogasun eta Finantza Departamentuak, salbu Diputatuen Kontseiluari, diputatu nagusiari eta beste departamentu batzuei berariaz ematen zaizkionak, hala jasotzen baitu 2020ko irailaren 29ko 10/2020 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, 1. artikulua 3. ataleko a) letran.

Bigarrena.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa) 89. artikuluan ezartzen du, tributuen aplikazioak behar duen gizarte lankidetzaz bideratzeko, zerga Administrazioak akordioak sinatu ditzakeela beste herri administrazio batzuekin, entitate pribatuekin eta gizarte, lan, enpresa edo lanbideetako sektore edo interesen ordezkari diren instituzio edo erakundeekin, eta, zerga Administrazioak berak ezarriko dituela baldintzak eta beharrezkoak gizarte lankidetzaz teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliz gauzatu dadin.

Hirugarrena.- Departamentuak, bere eskumenak baliatuz eta kudeaketa eraginkorra izan dadin, komenigarritzat jo du zerga jakin batzuen kudeaketan laguntzeko lanak egiten laguntzeko baldintzak ezartzea. Nolanahi ere, horien gaineko eskumena aipatu Departamentuarena da, hala jasotzen baitu 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunarenak.

Laugarrena.- Departamentuak zerga-ordezkaritzaren errolda bat du, azaroaren 5eko 584/2014 Foru Aginduan arautua. Sistema horren bidez, erroldan erregistratutako zerga-kudeaketako

El Decreto Foral 10/2020, de 29 de septiembre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas establece en la letra a, apartado 3 del artículo 1, que éste ejercerá las competencias asumidas por la Diputación Foral en virtud de lo establecido en la Ley del Concierto Económico y disposiciones que la desarrollan, salvo las que correspondan al Consejo de Gobierno Foral, al diputado general y las que se asignen expresamente a otros departamentos.

Segundo.- El artículo 89 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa (Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo) establece que la colaboración social en la gestión de los tributos podrá instrumentarse a través de acuerdos de la administración tributaria con otras administraciones públicas, con entidades privadas o con instituciones u organizaciones representativas de sectores o intereses sociales, laborales, empresariales o profesionales, y que la Administración tributaria podrá señalar los requisitos y condiciones para que la colaboración social se realice mediante la utilización de técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos.

Tercero.- El Departamento, en el ejercicio de sus competencias y por razones de eficacia en la gestión, ha considerado conveniente establecer las condiciones para la colaboración en la presentación de modelos de autoliquidación tributaria puntuales u ocasionales, correspondiendo en todo caso la competencia sobre dichos tributos al citado Departamento, de conformidad con lo previsto en la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Cuarto.- El Departamento dispone de un censo de representación tributaria regulado en la Orden Foral 584/2014, de 5 de noviembre. A través de este sistema, las personas profesionales de la gestión tributaria



profesionalek, ZERGABIDEA plataformaren bidez, aldizkako autoliquidazio-ereduak aurkez ditzakete hirugarrenen izenean, baldin eta hirugarren horrek ordezkaturia izateko borondatea adierazten badiu Departamentuari.

Hitzarmen honen bidez izapideak erraztu nahi dira zerga-ordezkaritzaren erroldan erregistratutako profesionalak, hirugarren pertsonen izenean, noizbehinkako zerga-autoliquidazioko ereduak aurkeztu ahal izateko.

Akordio hau sinatzen den egunean, atxikitako elkargokideek aurkez ditzaketen zerga-ereduak 670, 671 eta 672 zerga-ereduak dira. Hiru eredu horiei dagozkien autoliquidazioak aurkezteko oinarriak eta prozedura III. eranskinean jasotzen dira. Eredu berrien aurkezpena hitzarmen honen eranskinetan ezarriko da.

Departamentuak zerga-eredu berriak aurkezteko aukera jakinaraziko die atxikitako elkargokideei. Jakinarazpen horretan, zerga-eredu berrien aurkezpena arautuko duen hitzarmenaren eranskina jasoko da.

Unean uneko edo noizbehinkako zerga-autoliquidazioko eredu horiek aurkeztu ahal izango dituzte elkargokide diren pertsonak, baldin eta baldintza bikoitza betetzen badute: zerga-ordezkaritzaren erroldan erregistratutako profesionalak izatea eta hitzarmen honi atxikita egotea.

Aurreko atalari dagokionez, atxikitako pertsonen alta emango zaie beren ohiko negozioa osatzen duten ereduak aurkezpenean. Horrela, eredu puntualak

registradas en el censo pueden presentar a través de la plataforma ZERGABIDEA modelos de autoliquidación de carácter periódico en nombre de terceras personas, siempre que éstas manifiesten ante el Departamento su voluntad de ser representadas.

El presente convenio trata de facilitar los trámites para la presentación en nombre de terceras personas de modelos de autoliquidación tributaria de presentación puntual u ocasional por parte de las personas profesionales registradas en el censo de representación tributaria.

A fecha de la firma de este acuerdo, los modelos de autoliquidación tributaria susceptibles de ser presentados por las personas colegiadas adheridas son los modelos tributarios 670, 671 y 672. Las bases y el procedimiento para la presentación de las autoliquidaciones correspondientes a estos tres modelos se incluyen en el anexo III. La posibilidad de presentar nuevos modelos se establecerá en sucesivos anexos al presente convenio.

El Departamento notificará a las personas colegiadas adheridas la posibilidad de presentar nuevos modelos de autoliquidación tributaria. La notificación incluirá el anexo al convenio que regulará la presentación de nuevos modelos tributarios.

Se permitirá la presentación de estos modelos de autoliquidación tributaria puntual u ocasional a personas colegiadas que cumplan la doble condición de ser profesionales registradas en el censo de representación tributaria y que estén a su vez adheridas al presente convenio.

En relación con el apartado anterior, las personas adheridas se darán de alta para la presentación de los modelos de autoliquidación tributaria que constituyen su negocio habitual. De esta manera se trata de



aurkezteko laguntzaile profesionalizatuak eduki nahi dira.

Bosgarrena.- Gizarte-lankidetzaren esparru horretan, ICAGIk adierazi du interesa duela elkargokideek parte har dezaten zergadunei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzen eta laguntzen.

Seigarrena.- Lankidetzaren hitzarmen honen funtzionamendurako, lehenik eta behin, ICAGIk Departamentuari bidali behar dizkio, erregistro elektronikoz bidez, hitzarmenari atxikitzeko eskabideak (I. eranskina), interesa duten elkargokideek sinatuta. Ondoren, elkargokideek zerga-autolikidazioko ereduak aurkezpena arautzen duten dokumentuak (III. eranskina eta hurrengoak) behar bezala sinatuta bidaliko dituzte Departamentura, erregistro elektronikoz bidez. Azkenik, edozein aurkezpen egiteko, elkargokideak zergapeko pertsonaren ordezkari izan beharko du. Ordezkari horrek adieraziko du zer egintza juridikorentzat ematen den, eta harekin lotutako zerga-autolikidazioko ereduak aurkezteko aukera emango du. Atxikitako pertsonak dokumentu horren jatorrizkoa gordeko du.

Gauzak horrela, bi aldeek erabakitzen dute hitzarmen hau sinatzea, ondoko klausulei jarraituz:

KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da oinarrizko lankidetzaren esparrua ezartzea Departamentuaren eta ICAGIren artean, hirugarren klausulan zehaztutako zerga-ereduak aurkezteko betebeharrak kudeatzen eta betetzen laguntzeko.

Bigarrena.- Subjektuak.

disponer de colaboradores profesionalizados en la presentación de modelos puntuales.

Quinto.- En este marco de colaboración social, ICAGI ha manifestado su interés en que las personas colegiadas participen y colaboren en la mejora de los servicios prestados a las personas contribuyentes.

Sexto.- El funcionamiento del presente convenio de colaboración requiere, como primera actuación, que ICAGI remita al Departamento por registro electrónico las solicitudes de adhesión al convenio (anexo I) firmadas por las personas colegiadas interesadas. Posteriormente, éstas remitirán al Departamento por registro electrónico los documentos que regulan la presentación de los modelos de autoliquidación tributaria (anexos III y siguientes) debidamente firmados. Por último, toda presentación requerirá que la persona colegiada cuente con la representación de la persona obligada tributaria. Esta representación indicará el acto jurídico para la que se otorga y permitirá la presentación de los modelos de autoliquidación tributaria relacionados con el mismo. La persona adherida conservará el original de dicho documento.

De conformidad con lo expuesto, ambas partes deciden suscribir el presente convenio, que se regirá por las siguientes cláusulas.

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del convenio.

El objeto del presente convenio es establecer el marco básico de colaboración entre el Departamento e ICAGI para la realización de las tareas de apoyo para la gestión y el cumplimiento de las obligaciones en la presentación de los modelos tributarios detallados en la cláusula tres.

Segunda.- Sujetos.



Hitzarmen honi atxiki ahal izango zaizkio ICAGIko edo Estatuko beste Abokatuen Elkargo Prestu bateko kide diren pertsona fisiko edo sozietate profesional guztiak, baldin eta beren jarduera-eremu profesionalean ohikotasunez aurkezten badituzte hirugarren klausulan deskribatutako zerga-ereduak eta, gainera, zazpigarren klausulako baldintza guztiak betetzen badituzte.

Hitzarmen honen eranskinetan zerrendatutako ereduak aurkeztu ahal izango dituzte ICAGIn edo Estatuko Abokatuen beste Elkargo batzuetan inskribatutako sozietate profesionalek eta elkargokideek, bai eta pertsona horiek legezko ordezkariak duten erakundeek ere. Nolanahi ere, erakunde horiek zerga-kudeaketaren ordezkari profesional gisa agertu beharko dute.

Hirugarrena.- Hitzarmenaren edukia.

Atxikitako elkargokideek aurkeztu ahal izango dituzten zerga-ereduak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eta Ogasun eta Finantza Sailaren webgunean argitaratuko dira.

Laugarrena.- Aplikazio eremua.

Apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduaren 33. artikulua 2. atalean xedatutakoari jarraituz gizarte lankidetzaren hitzarmen honen ondorioak Elkargoaren kide diren pertsonen ere zabaldu ahal izango dira.

Bosgarrena.- Hitzarmenera atxikitze protokoloa.

Hitzarmenera atxikitze interesa duten pertsonen hitzarmenari atxikitze agiri individualizatua sinatu beharko dute, I. eranskin gisa ageri dena, eta, besteak beste, hitzarmenaren eduki osoa onartzen dutela berariaz jasotzen duena.

Podrán adherirse a este convenio todas las personas colegiadas o sociedades profesionales inscritas en ICAGI o en otros Ilustres Colegios de la Abogacía del Estado que su ámbito de actuación profesional incluya la presentación de forma habitual de los modelos tributarios descritos en la cláusula tercera y que cumplan además todos los requisitos de la cláusula séptima.

Podrán presentar los modelos relacionados en los anexos al presente convenio las sociedades profesionales inscritas y personas colegiadas en ICAGI o en otros Ilustres Colegios de la Abogacía del Estado, así como las entidades en las que dichas personas ostenten la representación legal. En todo caso, estas entidades deberán figurar como representantes profesionales de la gestión tributaria.

Tercera.- Contenido del convenio.

Los modelos de autoliquidación tributaria que podrán ser presentados por las personas colegiadas adheridas se publicarán en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en la página Web del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Cuarta.- Ámbito de aplicación.

Conforme a lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 33 del Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 5/2020, de 21 de abril, este convenio de colaboración social podrá extender sus efectos a las personas colegiadas del Colegio.

Quinta.- Protocolo de adhesión al convenio.

Las personas colegiadas interesadas en adherirse al convenio deberán suscribir el documento individualizado de adhesión al mismo que figura como anexo I que, entre otros extremos, recoge expresamente la aceptación del contenido íntegro de éste.



Seigarrena.- Hitzarmenari atxikitzekeo prozedura.

ICAGIk Departamentuari bidaliko dizkio, erregistro elektronikoko bidez, hitzarmenari atxikitzekeo eskabideak. Atxikitzekeo interesa duen elkargokideak elektronikoki sinatuko du igorritako atxikimendu-dokumentua.

ICAGIk kudeatu eta Departamentuari bidaliko ahal izango dizkio hitzarmenari atxikitzekeo interesa duten Estatuko beste Abokatuen Elkargo batean elkargokide diren pertsonen atxikitzekeo eskabideak.

Era berean, atxiki nahi den elkargokideak erregistro elektronikoko bidez bidaliko dizkio Departamentuari aurkeztu nahi dituen zerga-ereduei dagozkien autolikidazioak aurkeztekeo prozedura zehazten duten eranskinak, elektronikoki sinatuta.

Hitzarmenari atxikitzekeo prozedura aldatu ahal izango da, bi alderdiak ados jarrita, beste hitzarmen bat sinatu beharrik gabe.

Zazpigarrena.- Hitzarmenaren xede diren ereduak eta eskakizunak aurkeztea.

Autolikidazioak aurkeztean eta, hala badagokio, ordaintzean, dagokion zerga aurkeztekeo eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko sarrerak bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoen bidez ordaintzekeo oinarri eta prozeduren eranskinean eta araudi erregulatzaillean ezarritako betekizunak eta baldintzak beteko dira.

Hitzarmenari atxikitako elkargokideek hitzarmen honen xede diren zerga-ereduak aurkeztu ahal izango dituzte, betiere honako baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

a) Ordezkarari profesional gisa erregistratu beharko dira Departamentuko zerga ordezkarien erroldan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duen azaroaren 5eko

Sexta.- Procedimiento de adhesión al convenio.

ICAGI remitirá al Departamento por registro electrónico las solicitudes de adhesión al convenio. El documento de adhesión enviado estará firmado electrónicamente por la persona colegiada interesada en adherirse.

Asimismo, ICAGI podrá gestionar y enviar al Departamento las solicitudes de adhesión de personas colegiadas en otros Ilustres Colegios de la Abogacía del Estado que estén interesadas en adherirse al convenio.

A su vez, la persona o sociedad colegiada interesada en adherirse remitirá al Departamento por registro electrónico los anexos firmados electrónicamente con el procedimiento para la presentación de las autoliquidaciones correspondientes a los modelos tributarios que quiere presentar.

El procedimiento de adhesión al convenio podrá ser modificado de mutuo acuerdo sin necesidad de suscribir un nuevo convenio.

Séptima.- Requisitos y procedimiento de presentación de los modelos objeto del convenio.

En la presentación y, en su caso, pago de autoliquidaciones se observarán los requisitos y condiciones establecidas en la normativa reguladora y en el anexo de las bases y el procedimiento para la presentación del impuesto correspondiente y del pago por medios electrónicos, informáticos y telemáticos de los ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Las personas colegiadas adheridas al convenio podrán presentar los modelos de autoliquidación tributaria objeto de este convenio siempre y cuando cumplan todas y cada de los siguientes requisitos:

a) Inscribirse como representantes profesionales en el censo de representación en materia tributaria del Departamento en la forma prevista en los artículos 9 y siguientes de la Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre, por la que se



582/2014 Foru Agindua 9. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako moduan.

- b) Hitzarmen honetara bildu, I. eranskin gisa ageri den atxikimendu agiri individualizatua sinatuz.
- c) Sinadura elektronikoko balioztatuko ziurtagiria izatea.
- d) Erregistro elektronikoko bidez Departamentuari bidaltzea aurkez daitekeen zerga-eredu bakoitza aurkezteko prozedura arautzen duten eranskinak, elektronikoki sinatuta.

Zortzigarrena.- Departamentuak bere gain hartzen dituen konpromisoak.

Izaera orokorrez, Departamentuak konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Hitzarmen honetan aurreikusitako jardueren zuzendaritza bere gain hartzea; eskatzen denean, beharrezkoa den aholkularitza ematea; eta jarduera horien kudeaketa eta exekuzioa jarraitu eta gainbegiratzea.
- b) ICAGIri eta hitzarmenera bildutako pertsoneri beharrezko laguntza eta babesa ematea, hitzarmenean jasota dauden eginkizunak hobeto bete ahal izateko.
- c) Hitzarmen honen zazpigarren klausulan aurreikusitako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, eta, betetzen diren kasuan, atxikimendua balioztatzea.

Bederatzigarrena.- ICAGIk hartzen dituen konpromisoak.

Izaera orokorrez, ICAGIk konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Hitzarmenera bildutako elkargokideek haren klausulak eta eranskinak behar bezala betetzen dituztela zaintzea.

regula el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

- b) Adherirse al presente convenio mediante la suscripción del documento individualizado de adhesión al convenio que figura como anexo I.
- c) Disponer de un certificado de firma electrónica reconocida.
- d) Enviar al Departamento por registro electrónico los anexos firmados electrónicamente de las bases y el procedimiento para la presentación de cada modelo tributario susceptible de presentación.

Octava.- Compromisos que asume el Departamento.

Con carácter general, el Departamento se compromete a:

- a) Asumir la dirección de las actuaciones previstas en este convenio facilitando, cuando así se solicite, el asesoramiento necesario y realizando el seguimiento y supervisión de la gestión y ejecución de dichas actuaciones.
- b) Facilitar a ICAGI y a las personas adheridas al convenio la colaboración y apoyo necesarios para la mejor realización de las tareas previstas en el convenio.
- c) Comprobar el cumplimiento de los requisitos previstos en la cláusula séptima de este convenio y, en caso de cumplimiento, dar validez a la adhesión.

Novena.- Compromisos que asume ICAGI.

Con carácter general, ICAGI se compromete a:

- a) Velar por el correcto cumplimiento del clausulado de este convenio y sus anexos por parte de las personas colegiadas adheridas al mismo.



- b) Elkargoko kide diren pertsonen hitzarmenera biltzeko aurkezten dizkieten eskaerak izapidetzea, betiere egiaztatuz eskatzailea benetan ICAGIko edo Estatuko beste Abokatuaren Elkargoko kide dela.
- c) Atxikipen-egintzan den elkargokidearen borondate-deklarazioa egiaztatzea.
- d) Atxikitze-agiria sinatu duten elkargokideen errolda eguneratua mantentzea.

Elkargoak errolda horren kopia bat bidaliko dio Departamentuko Idazkaritza Teknikoari, errolda horretan aldaketak egiten diren bakoitzean.

Bereziki, berehala emango dio Departamentuari elkargokideen bajen berri. Kide horiek hitzarmenetik kanpo geratuko dira automatikoki.

- e) Laguntzea hitzarmenera bildutako pertsonen izapidetutako prozedurak eta espedienteak egiaztatzeko egin daitezkeen auditoretza prozesuetan.

Apartatu honetan zerrendatutako edozein konpromiso betetzen ez bada, Departamentuak egoki irizten dituen neurriak hartu ahal izango ditu, baita hitzarmena suntsiaraztea ere ez-betetze larriaren arabera.

Hamargarrena.- Atxikitzen den elkargokideak bere gain hartzen dituen konpromisoak.

Oro har, hitzarmenera atxikitzen den elkargokideak konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Ordezkatzen diren zergadunen ordezkaritza nahikoa izatea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 46. artikuluan eta apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketari eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduaren 61.

- b) Tramitar las solicitudes de adhesión al convenio que le presenten las personas colegiadas, comprobando la efectiva pertenencia de la solicitante a ICAGI o a otro Colegio de la Abogacía del Estado.
- c) Certificar la declaración de voluntad de la persona colegiada, manifestada en el acto de adhesión.
- d) Mantener un censo actualizado de las personas colegiadas que hayan suscrito el documento de adhesión.

ICAGI trasladará a la Secretaría Técnica del Departamento una copia del citado censo cada vez que se produzcan modificaciones en el mismo.

Especialmente informará al Departamento de forma inmediata sobre las bajas de sus colegiadas adheridas, quienes quedarán automáticamente excluidas del convenio.

- e) Colaborar en los procesos de auditoría que se puedan desarrollar para la comprobación de los procedimientos y expedientes tramitados por las personas adheridas al convenio.

El incumplimiento de cualquiera de los compromisos relacionadas en este apartado constituirá motivo suficiente para que el Departamento adopte las medidas que estime oportunas, incluida la resolución del convenio en atención a la gravedad de incumplimiento.

Décima.- Compromisos que asume la persona colegiada adherida.

Con carácter general, las personas colegiadas adheridas se comprometen a:

- a) Ostentar la representación suficiente de las personas contribuyentes en cuyo nombre se actúe en los términos establecidos en el artículo 46 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en los artículos 61 y 62 del Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos



eta 62. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Horretarako baliozkoa izango da hitzarmen honen II. eranskin gisa ageri den 001MP ordezkari-tza eredu-a.

Ordezkaritza horrek ahalmena emango die hitzarmenari atxikitako pertson-ei, soilik, eman zen egintza juridikoarekin lotutako zerga-ereduak aurkezteko. Aurkeztu beharreko agiriak egokiak ez bada, edo eredu-a onartzen ez bada, ordezkariari jakinaraziko zaio. Ordezkatutako pertsonaren beste edozein autolikidazio aurkezteko, bai eta beste edozein kudeaketa egiteko ere, nahiz eta Departamentuan aurkeztutako hasierako aitopenen ondorio izan edo harekin lotuta egon, dagokion ordezkari-tza izapidetu beharko dute, azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduan araututakoaren arabera.

Hitzarmenera atxikitako pertson-ek beren gain hartuko dute ordezkari-tza horren egiaztatze-ko agiriak gordetze-ko erantzukizuna.

Dokumentazio hori Departamentuaren eskura egon beharko da une oro, eta eskatuz gero atzerapenik gabe aurkeztu beharko da.

Izapidetze elektronikoak hala eskatzen badu, ordezkariak ordezkari-tza erregistratu beharko du eta/edo ordezkari-tza hori erabiliz jarduten dela egiaztatatu.

- b) Datu pertsonalak eta zerga-arloan eragina duten datuak babestu eta gordetze-ari buruz aplikatu beharreko araudia betetzea.
- c) Hitzarmenari atxikitako pertsonak izango dira hitzarmenaren babesean aurkeztutako autolikidazioen egiazkotasunaren eta osotasunaren

tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 5/2020, de 21 de abril. Será válido a estos efectos el modelo de representación 001MP que figura como anexo II del presente convenio.

Esta representación únicamente facultará a las personas adheridas al convenio para la presentación de los modelos tributarios relacionados con el acto jurídico para la que fue otorgada. La no adecuación de la documentación a aportar, así como el rechazo del modelo se notificará a la persona representante. Para la presentación de cualquier otra autoliquidación incluso de la misma persona representada, así como para la realización de cualquier otra gestión aun cuando esté relacionada o traiga causa de la presentación de la declaración inicial ante el Departamento deberán tramitar la correspondiente representación de conformidad con lo regulado en la citada Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre.

Las personas adheridas al convenio asumirán la responsabilidad de la custodia de la documentación acreditativa de dicha representación.

Esta documentación deberá permanecer en todo momento a disposición del Departamento, sin que puedan producirse demoras en su presentación en caso de ser solicitada.

En la medida que la tramitación electrónica lo exija, la persona representante deberá registrar la representación y/o verificar actuar en uso de la misma.

- b) Cumplir la normativa que resulte de aplicación sobre protección y reserva tanto de datos de carácter personal, como de datos con transcendencia tributaria.
- c) Las personas adheridas al convenio serán responsables de la veracidad e integridad de las autoliquidaciones presentadas al amparo del convenio, así como de la



erantzule, bai eta horiekin batera emandako informazioaren erantzule ere.

Halaber, erantzungo dute hitzarmenean jasotako edozein obligazio ez betetzearen ondorioz sor daitezkeen kalte-galera guztiez.

Hitzarmen honetan aurreikusitako edozein betebeharrak eta atxikimendu agiri individualizatuetan onartutako betebeharren bat ez betetzea arrazoi nahikoa izango da Departamentuak egokitzat jotzen dituen neurriak hartzeko, hitzarmenetik kanpo uztea eta atxikitako pertsona izaera ezeztatzea barne, ez-betetze larriaren arabera.

Hamaikagarrena.- Ereduak ez erabiltzeagatik aurkezteko aukera etetea.

Departamentuak bertan behera utziko du atxikitako pertsonak dagokion eranskinean jasotako zerga-ereduak aurkezteko aukera, gutxienez urtebetez sinatutako eranskineko eredurik aurkeztu ez badu. Hitzarmen honetan araututako autoliquidazioko zerga-ereduak aurkezteko aukerari berriro ekiteko, beharrezkoa izango da dagokion eranskina bidaltzea eta bertan jasotako autoliquidazio-ereduren bat aurkezteak.

Hamabigarrena.- Hitzarmena gauzatzea eta gatatzak konpontzea.

Hitzarmen honen zehaztapenak interpretatzeko ahalmena Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuari dagokio.

Hitzarmen honen gainbegiratze-, jarraipen- eta kontrol-lanak Departamentuko Idazkaritza Teknikoak eta Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusiak egingo dituzte.

Hitzarmen hau gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak koordinatze aldera, eta, era berean, hitzarmena gainbegiratu, haren segimendua egin eta kontrolatzeko, alderdiek

información suministrada junto con las mismas.

Asimismo, responderán de todos los daños y perjuicios que sean consecuencia del incumplimiento de cualquiera de las obligaciones establecidas en este convenio.

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones previstas en este convenio y de las asumidas en los documentos individualizados de adhesión constituirá motivo suficiente para que el Departamento adopte las medidas que estime oportunas, incluida la exclusión del convenio y cancelación de la condición de persona adherida.

Decimoprimera.- Suspensión de la posibilidad de presentación de los modelos por no utilización.

El Departamento suspenderá la posibilidad de que la persona adherida pueda presentar los modelos tributarios recogidos en el anexo correspondiente cuando ésta no haya presentado al menos durante un año ningún modelo del anexo suscrito. Para reanudar la posibilidad de presentación de modelos tributarios de autoliquidación regulados en este convenio será necesario la remisión del anexo correspondiente y la presentación de algún modelo de autoliquidación recogido en él.

Decimosegunda.- Ejecución del convenio y solución de conflictos.

La facultad de interpretación de los términos del presente convenio, corresponde al Diputado foral de Hacienda y Finanzas.

Las labores de supervisión, seguimiento y control del presente convenio corresponderán a la Secretaría Técnica y a la Subdirección General de Gestión Tributaria del Departamento.

Con el fin de coordinar las actividades necesarias para la ejecución del presente



koordinazio eta jarraipen batzorde bat osa dezakete.

Batzorde hori eratuz gero, Departamentuko diputatuak izendaturiko hiru ordezkariak eta ICAGI izendaturiko beste hiruk osatuko dute; batzordearen funtzionamendurako Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18.era ezarritakoa bete beharko da. Hori guztia, beharrezkotzat jotzen den beste edozein pertsona aholkulari gisa sartzeko aukerari kalterik egin gabe.

Hamairugarrena.- Eguneratzeak eta aldaketak.

Hitzarmen honen edukia eguneratu edo aldatu ahal izango da, alderdien adostasunarekin, edozein unetan. Horretarako, alderdiek hitzarmen horretako dagokion eranskina sinatuko dute.

Hala ere, hitzarmenaren funtsezko aldaketarik ez dakarten araudi-aldaketak zuzenean ezarri ahal izango dira, hitzarmena aldatu beharrik gabe.

Hamalagarrena.- Eragina izatea eta iraungitzea.

Hitzarmen honek eragina izango du sinatzen den unetik, eta lau urteko iraunaldia izango du. Epe hori amaitu aurretik edozein unetan alderdiek aho batez onar dezakete hura luzatzea, gehienez beste lau urterako.

Bere epea amaitzeagatik ez ezik, arrazoi hauengatik ere iraungi daiteke hitzarmena:

- a) Sinatzaileak berariaz hala adosteagatik.
- b) Sinatzaileetako edozeinek hitzarmena espresuki salatzeagatik, baldin eta beste aldeari forman jakinarazten bazaio salaketa.
- c) Alderdiek harturiko konpromisoak betetzen ez direlako.

Hitzarmena iraungitzen den kasuan, arrazoia edozein dela ere, aldeek konpromisoa hartzen

convenio, las partes podrán crear una comisión de coordinación y seguimiento.

En el caso de crearse dicha comisión ésta estará compuesta por tres representantes designados por el diputado o diputada del Departamento y otros tres designados por ICAGI y su funcionamiento se ajustará a lo dispuesto en los artículos 15 a 18 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Todo ello sin perjuicio de la posibilidad de incorporar a la misma, en calidad de asesores, cualesquiera otras personas que se considere necesario.

Decimotercera.- Actualizaciones y modificaciones.

El contenido del presente convenio podrá ser actualizado o modificado de mutuo acuerdo en cualquier momento, a cuyo efecto las partes suscribirán el correspondiente anejo al mismo.

No obstante, las modificaciones normativas que no supongan una modificación sustancial del convenio se podrán aplicar directamente sin necesidad de su modificación.

Decimocuarta.- Efectos y extinción.

El presente convenio surtirá efectos desde la fecha de su firma y estará vigente durante cuatro años. En cualquier momento antes de la finalización de este plazo, las partes podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales.

Además de por su vencimiento, el convenio podrá extinguirse:

- a) Por mutuo acuerdo expreso de las partes.
- b) Por denuncia expresa de cualquiera de las partes firmantes, notificada en forma a la otra parte.
- c) Por incumplimiento de los compromisos adquiridos por las partes.

En caso de extinción del convenio, cualquiera que sea su causa, las partes se comprometen a realizar las gestiones dirigidas a la



dute beharrezko izapideak egingo dituztela hasitako jarduerak amaitzeko.

Hamabosgarrena.- Araubide ekonomikoa.

Hitzarmen honek ez du sortzen obligazio ekonomikorik Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Hamaseigarrena.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legeak 47.2.a) artikuluan aurreikusitako hitzarmen motari dagokio.

Era berean, sektore publikoko kontratuei buruzko araudiaren aplikazio esparrutik kanpo geratzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzekoa).

Hitzarmena garatu eta gauzatu bitartean alderdien artean sortzen diren gatazkak ezin badira konpondu hamabigarren klausulan aurreikusitako koordinazio eta jarraipen batzordean, administrazioarekiko auzien jurisdikziotik ebatziko dira, hura arautzen duen legean ezarritakoari jarraituz.

Eta adostasuna erakusteko, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzen dute, sinaduran adierazitako egunean.

Ogasun eta Finantzetako foru diputatua /
El diputado foral de Hacienda y Finanzas,

finalización de las acciones iniciadas que sean necesarias.

Decimoquinta.- Régimen económico.

Este convenio no comporta obligaciones económicas para la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Decimosexta.- Régimen jurídico.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se corresponde al tipo de convenio previsto en el artículo 47.2.a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Asimismo, está excluido del ámbito de aplicación de la normativa sobre contratos del sector público de conformidad con lo previsto en el artículo 6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante su desarrollo y ejecución y no puedan ser resueltas en el seno de la comisión de coordinación y seguimiento prevista en la cláusula decimosegunda, se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en su ley reguladora.

En prueba de conformidad, ambas partes lo firman en la fecha indicada en la firma.

Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuaren
dekanoa /
La decana del Ilustre Colegio de la Abogacía
de Gipuzkoa,

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ICAGI

ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA

Jokin Perona Lertxundi

M^a Lourdes Maiztegui González